



## 1. Antolakuntza eta jarduera

POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko erakunde autonomoa da, Segurtasun Sailari atxikita dago, eta Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak sortu zuen.

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Ordenatzeari buruzko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen II. Tituluak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren sorrerari eta erregulazioari ekiten die, bere eginkizunetan ordura arte Euskal Herriko Poliziaren ikastegia izan dena ordezkatzeko duen Akademia. Hori bai, Akademiaren eginkizunak berriz zehazten dira segurtasun publikoaren sistema osoa kontuan harturik.

Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuak indargabetu egiten ditu Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen testu artikulatua eta hura aldatu duten gainerako legeak.

Bere oinarritzko xedea da Gobernuak segurtasun publikoaren arlorako duen prestakuntza-, hautaketa-, ikerketa- eta berrikuntza-politika gauzatea, hala Euskal Herriko Poliziari dagozkion arloetan, nola babes zibilari eta larrialdi-zerbitzuei dagozkienetan.

Diru-sarreraren iturri nagusia EAEko Administrazio Orokorrak emandako transferentziak dira.

Gobernu- eta kudeaketa-organoak Zuzendaritza Kontseia, Akademiaren Zuzendaritza Nagusia eta Administrazio eta Zerbitzu Zuzendaritza dira.

Erakunde autonomoaren kontabilitatearen kudeaketa Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egiten du, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen 12.1 artikulua aplikatuz.

Langileen batez besteko kopurua 452 pertsonakoa izan da 2023an.

## 2. Kontuak aurkezteko oinarriak

2023ko ekitaldiko urteko kontuak Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontabilitate Publikoko Planean ezartzen diren arauak jarraituz aurkezten dira. Plan hori Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2012ko ekainaren 25eko Aginduaren bidez onartu zen.

## 1. Organización y actividad

LA ACADEMIA VASCA DE POLICÍA Y EMERGENCIAS es un organismo autónomo administrativo de la Comunidad Autónoma de Euskadi, adscrito al Departamento de Seguridad y creado por la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco.

La Ley 15/2012, de 28 de junio, de Ordenación del Sistema de Seguridad Pública de Euskadi en su Título II aborda la creación y regulación de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, que sucede en sus funciones a la hasta ahora Academia de Policía del País Vasco, si bien se redefinen sus funciones atendiendo al conjunto del sistema de seguridad pública.

El Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco deroga el texto articulado de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, así como las demás leyes que lo han modificado.

Su objetivo básico es ejecutar la política formativa, de selección y de investigación e innovación del Gobierno en la materia de seguridad pública, tanto en las áreas correspondientes a la Policía del País Vasco como en las de protección civil y emergencias.

La principal fuente de ingresos son las transferencias recibidas de la Administración General de la CAE.

Los órganos de gobierno y gestión son el Consejo Rector, la Dirección General de la Academia y la Dirección de Administración y Servicios.

La gestión de la contabilidad del organismo autónomo se lleva a cabo por la Oficina de Control Económico, en aplicación del artículo 12.1. de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El número medio de empleados durante 2023 ha sido de 452.

## 2. Bases de presentación de las cuentas

Las cuentas anuales del ejercicio 2023 se presentan de acuerdo con las normas establecidas en el Plan de Contabilidad Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por Orden de 25 de junio de 2012, del Consejero de Economía y Hacienda.



Aipatutako kontuak, hain zuzen ere, balantzea, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta diru-fluxuen egoera-orria, osatzen dituzten dokumentuetan biltzen diren zenbakiak eurotan adierazita daude.

Urteko kontu horiek, hainbat aldagairekin konparazioak egite aldera (balantzeko partida bakoitza, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta diru-fluxuen egoera-orria), 2023ko ekitaldiko zenbakiez gain, aurreko ekitaldiari dagozkion zenbakiak ere aurkezten dituzte.

*Las cifras contenidas en los documentos que componen las citadas cuentas, el balance, la cuenta del resultado económico patrimonial, el estado de cambios en el patrimonio neto y el estado de flujos de efectivo, están expresadas en euros.*

*Dichas cuentas anuales presentan a efectos comparativos, con cada una de las partidas del balance, de la cuenta del resultado económico patrimonial, del estado de cambios en el patrimonio neto y del estado de flujos de efectivo, además de las cifras del ejercicio 2023, las correspondientes al ejercicio anterior.*

### 3. Aintzatespen- eta balioespen-arauak

Honako kontabilitate-irizpide hauek aplikatu dira:

- a) Ibilgetu materiala: Ibilgetu materialaren eskuratzeak erositako prezioan kontabilizatzen dira, eta linealki amortizatzen dira ondasunen balio-bizitzaren arabera.
- b) Ibilgetu ukiezina: Ibilgetu ukiezinaren eskuratzeak erositako prezioan daude kontabilizatuta, eta linealki amortizatzen dira 5 urteko epean.
- c) Diru-sarrerak eta gastuak: Diru-sarrerak eta gastuak sortzen diren ekitaldian aitortzen dira kontabilitatean, eta ez kobratzen edo ordaintzen direnean.
- d) Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak: Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak diru-sarrera gisa erregistratzen dira, jasotzeko eskubidea sortzen den ekitaldian.
- e) Emandako transferentziak eta diru-laguntzak: Emandako transferentziak eta diru-laguntzak aurrekontu-obligazioa aintzatesten denean erregistratzen dira.

### 3. Normas de reconocimiento y valoración

Se han aplicado los siguientes criterios contables:

- a) *Inmovilizado material: Las adquisiciones de inmovilizado material se contabilizan al precio de adquisición y se amortizan linealmente en función de la vida útil de los bienes.*
- b) *Inmovilizado intangible: Las adquisiciones de inmovilizado intangible figuran contabilizados a su precio de adquisición y se amortizan linealmente en un periodo de 5 años.*
- c) *Ingresos y gastos: Los ingresos y los gastos se reconocen contablemente en el ejercicio en que se devengan y no cuando se produce su cobro o pago.*
- d) *Transferencias y subvenciones recibidas: Las transferencias y subvenciones recibidas se registran como ingresos en el ejercicio en que surge el derecho a su percepción.*
- e) *Transferencias y subvenciones concedidas: Las transferencias y subvenciones concedidas se registran cuando se reconoce la obligación presupuestaria.*



#### 4. Ibilgetu materiala

#### 4. Inmovilizado material

Epigrafe honetako partidetan ondorengo mugimenduak izan dira:

Los movimientos de las partidas incluidas en este epígrafe han sido los siguientes:

Eurotan  
En euros

| KONTZEPTUA<br>CONCEPTO  | Lurrak<br>Terrenos | Eraikuntzak<br>Construcciones | Bestelako ibilgetu<br>materiala<br>Otro inmovilizado<br>material | Egite-bidean den ibilgetua<br>eta aurrerakinak<br>Inmovilizado en curso<br>y anticipos | GUZTIRA<br>TOTAL  |
|---|--------------------|-------------------------------|--|--|-------------------|
| <b>KOSTUA<br/>COSTE</b>   |                    |                               |  |  |                   |
| <b>2023ko urtarrilaren 1eko saldoa<br/>Saldo al 1 de enero de 2023</b>    | 319.567            | 19.353.266                    | 2.509.450  | 443.217  | 22.625.501        |
| Altak<br>Altas  | --                 | --                            | 298.934  | 655.755  | 954.689           |
| Bajak<br>Bajas  | --                 | --                            | (103.654)  | --   | (103.654)         |
| <b>2023ko abenduaren 31ko saldoa<br/>Saldo al 31 de diciembre de 2023</b> | <b>319.567</b>     | <b>19.353.266</b>             | <b>2.704.730</b>   | <b>1.098.972</b>   | <b>23.476.535</b> |
| <b>AMORTIZAZIOA<br/>AMORTIZACIÓN</b>                                      |                    |                               |  |  |                   |
| <b>2023ko urtarrilaren 1eko saldoa<br/>Saldo al 1 de enero de 2023</b>    | --                 | 13.012.736                    | 1.283.999  | --   | 14.296.735        |
| Zuzkidurak<br>Dotaciones  | --                 | 233.885                       | 302.921  | --   | 536.806           |
| Bajak<br>Bajas  | --                 | --                            | (103.654)  | --   | (103.654)         |
| <b>2023ko abenduaren 31ko saldoa<br/>Saldo al 31 de diciembre de 2023</b> | <b>--</b>          | <b>13.246.621</b>             | <b>1.483.265</b>   | <b>--</b>  | <b>14.729.886</b> |
| <b>KONTABILITATE BALIO GARBIA<br/>VALOR NETO CONTABLE</b>                 |                    |                               |  |  |                   |
| <b>2023ko urtarrilaren 1eko saldoa<br/>Saldo al 1 de enero de 2023</b>    | 319.567            | 6.340.530                     | 1.225.451  | 443.217  | 8.328.766         |
| <b>2023ko abenduaren 31ko saldoa<br/>Saldo al 31 de diciembre de 2023</b> | <b>319.567</b>     | <b>6.106.645</b>              | <b>1.221.465</b>   | <b>1.098.972</b>   | <b>8.746.649</b>  |

Ibilgetu materialen eskuratzeak erositako prezioan kontabilizatzen dira eta honako ehunekoei jarraiki amortizatzen dira:

Las adquisiciones de inmovilizaciones materiales se contabilizan al precio de adquisición y se amortizan en función de los siguientes porcentajes:

Eraikuntzak %1,16 - 4  
Bestelako ibilgetu materiala %10 - 20

Construcciones 1,16 - 4%  
Otro inmovilizado material 10 - 20%



**5. Ibilgetu ukiezia**

Epigrafe honetako partidetan ondorengo mugimenduak izan dira:

**5. Inmovilizado intangible**

Los movimientos de las partidas incluidas en este epígrafe han sido los siguientes:

Eurotan  
En euros

| KONTZEPTUA<br>CONCEPTO   | Jabetza industrial<br>eta intelektuala<br><i>Propiedad industrial<br/>e intelectual</i> | Aplikazio informatikoak<br><i>Aplicaciones informaticas</i> | GUZTIRA<br>TOTAL |
|--|---|---|------------------|
| <b>KOSTUA</b><br><b>COSTE</b>  |   |   |                  |
| 2023ko urtarrilaren 1eko saldoa<br><i>Saldo al 1 de enero de 2023</i>    | 15.025  | 207.516   | 222.541          |
| 2023ko abenduaren 31ko saldoa<br><i>Saldo al 31 de diciembre de 2023</i> | 15.025  | 207.516   | 222.541          |
| <b>AMORTIZAZIOA</b><br><b>AMORTIZACIÓN</b>                               |   |   |                  |
| 2023ko urtarrilaren 1eko saldoa<br><i>Saldo al 1 de enero de 2023</i>    | 15.025  | 200.256   | 215.282          |
| Zuzki durak<br><i>Dotaciones</i>   | --  | 3.103   | 3.103            |
| 2023ko abenduaren 31ko saldoa<br><i>Saldo al 31 de diciembre de 2023</i> | 15.025  | 203.359   | 218.385          |
| <b>KONTABILITATE BALIO GARBIA</b><br><b>VALOR NETO CONTABLE</b>          |   |   |                  |
| 2023ko urtarrilaren 1eko saldoa<br><i>Saldo al 1 de enero de 2023</i>    | --  | 7.260   | 7.260            |
| 2023ko abenduaren 31ko saldoa<br><i>Saldo al 31 de diciembre de 2023</i> | --  | 4.156   | 4.156            |

Ibilgetu ukiezinaren eskuratzeak erositako prezioan kontabilizatzen dira eta linealki 5 urteko epean amortizatzen dira.

Las adquisiciones de inmovilizaciones intangibles figuran contabilizadas a su precio de adquisición y se amortizan linealmente en un período de 5 años.



6. Aktibo finantzarioak

6. Activos financieros

| Eurotan<br>En euros   |   |
|---|---|
| KONTZEPTUA<br>CONCEPTO  | Epe laburreko aktibo<br>finantzarioak<br>Activos financieros a<br>c/p |
| <b>Taldeko erakundeetan egindako inbertsioak</b><br><i>Inversiones en entidades del grupo</i>           | <b>10.498.981</b>   |
| EAEko Administrazio Orokorrarekiko kredituak<br><i>Créditos con la Administración General de la CAE</i> | 10.498.981  |
| <b>Inbertsio finantzarioak</b><br><i>Inversiones financieras</i>  | <b>7.987</b>  |
| Funts aurreratuak. Pertsonalari emandako kredituak<br><i>Fondos anticipados. Créditos al personal</i>   | 446   |
| Eratutako fidantzak<br><i>Fianzas constituidas</i>  | 7.541   |
| <b>GUZTIRA<br/>TOTAL</b>  | <b>10.506.969</b>   |

“Administrazio Orokorrarekiko kredituak” kontuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin duen saldo zorduna jasotzen du. Izan ere, POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAREN diruzaintzako eragiketa gehienak, ordainketak eta sarrerak, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiaren bitartez egiten dira.

La cuenta “Créditos con la Administración General” recoge el saldo deudor con la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi como consecuencia de que la mayor parte de las operaciones de tesorería, pagos y cobros, de la ACADEMIA VASCA DE POLICÍA Y EMERGENCIAS se realizan a través de la Tesorería General del País Vasco.

7. Transferentziak, diru-laguntzak eta beste diru-sarrera eta gastu batzuk

7. Transferencias, subvenciones y otros ingresos y gastos

Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.

Transferencias y subvenciones recibidas.

POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA erakunde autonomoak, 2023ko ekitaldian, honako transferentzia eta diru-laguntza hauek jaso ditu bere aurrekontua finantzatzeko:

El organismo autónomo ACADEMIA VASCA DE POLICÍA Y EMERGENCIAS ha recibido en el ejercicio 2023 las siguientes transferencias y subvenciones para la financiación de su presupuesto:

JASOTAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK  
TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES RECIBIDAS

| Eurotan<br>En euros   |   |
|---|---|
| KONTZEPTUA<br>CONCEPTO                                      | 2023/12/31ko saldoak<br>Saldos a 31/12/2023 |
| Transferentzia arruntak<br><i>Transferencias corrientes</i> | 19.261.500                                  |
| Diru-laguntza arruntak<br><i>Subvenciones corrientes</i>    | 193.661                                     |
| <b>GUZTIRA<br/>TOTAL</b>                                    | <b>19.455.161</b>                           |



POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA  
ACADEMIA VASCA DE POLICÍA Y EMERGENCIAS

Emandako transferentziak eta diru-laguntzak.

Transferencias y subvenciones concedidas.

POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA erakunde autonomoak, 2023ko ekitaldian, honako diru-laguntza hauek eman ditu:

El organismo autónomo ACADEMIA VASCA DE POLICÍA Y EMERGENCIAS ha concedido durante el ejercicio 2023 las siguientes subvenciones:

**EMANDAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK**  
**TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES CONCEDIDAS**

| KONTZEPTUA<br>CONCEPTO  | Eurotan<br>En euros                         |  |
|---|---|--|
|   | 2023/12/31ko saldoak<br>SalDOS a 31/12/2023 |  |
| Familiantzako eta bestelako erakundeentzako diru-laguntzak<br>Subvenciones a familias y otras instituciones | 830.000                                     |  |
| EAEko beste zuzenbide publikoko erakunde batzuentzat<br>A otros entes de derecho público de la CAE          | 60.000                                      |  |
| <b>GUZTIRA<br/>TOTAL</b>  | <b>890.000</b>                              |  |

**8. Aurrekontuz kanpoko eragiketak**

**8. Operaciones no presupuestarias**

Honako hauek izan dira aktibo korrienteko "Kobratu beharreko beste kontu batzuk" epigrafeko mugimenduak:

Los movimientos del epígrafe "Otras cuentas a cobrar" del activo corriente han sido los siguientes:

**AURREKONTUZ KANPOKO ZORDUNAK**  
**DEUDORES NO PRESUPUESTARIOS**

| KONTZEPTUA<br>CONCEPTO  | Eurotan<br>En euros                          |   |   |
|---|--|---|---|
|   | 2023/01/01eko saldoak<br>SalDOS a 01/01/2023 | Aldiko aldea<br>Variación en el periodo | 2023/12/31ko saldoak<br>SalDOS a 31/12/2023 |
| Jasanarazitako BEZarengatik zordunak<br>Deudores por IVA repercutido              | --   | 715                                     | 715   |
| Lansarien aurrerakinak<br>Anticipos de remuneraciones                             | 1.500  | (173)                                   | 1.327                                       |
| Lansarien aurrerakinak<br>Anticipos de nómina                                     | 1.500  | (500)                                   | 1.000                                       |
| Nomina zordunak<br>Deudores de nómina   | --   | 327                                     | 327   |
| Ordaintzeko dauden funtsen igorpenak<br>Libramientos de fondos pendientes de pago | (2.522)                                      | 2.522                                   | --  |
| <b>GUZTIRA<br/>TOTAL</b>  | <b>(1.022)</b>                               | <b>3.064</b>                            | <b>2.042</b>                                |



Honako hauek izan dira pasibo korrienteko "Ordaindu beharreko beste kontu batzuk" eta "Administrazio publikoak" epigrafeetako mugimenduak:

Los movimientos de los epígrafes "Otras cuentas a pagar" y "Administraciones públicas" del pasivo corriente han sido los siguientes:

**AURREKONTUZ KANPOKO HARTZEKODUNAK**  
**ACREEDORES NO PRESUPUESTARIOS**

Eurotan  
En euros

| KONTZEPTUA<br>CONCEPTO  | 2023/01/01eko saldoak<br>Saldos a 01/01/2023 | Aldiko aldea<br>Variación en el periodo | 2023/12/31ko saldoak<br>Saldos a 31/12/2023 |
|---|--|---|---|
| Sarrerren itzulketagatiko hartzekodunak<br><i>Acreeedores por devolución de ingresos</i>                            | 1.277  | (1.277)                                 | --  |
| Hainbat hartzekodun<br><i>Otros acreedores</i>  | 7.019  | (3.731)                                 | 3.289                                       |
| Ogasun Publikoa, hainbat kontzepturengatik hartzekodun<br><i>Hacienda Pública, acreedora por diversos conceptos</i> | 327.808                                      | 12.053                                  | 339.861                                     |
| BEZagatik<br><i>Por IVA</i>   | --   | 1.005                                   | 1.005                                       |
| Egindako atxiki penengatik<br><i>Por retenciones practicadas</i>  | 327.808                                      | 11.047                                  | 338.856                                     |
| Gizarte aurreikuspeneko erakundeak, hartzekodunak<br><i>Organismos de previsión social, acreedores</i>              | 966.256                                      | (288.733)                               | 677.523                                     |
| Gizarte Segurantza<br><i>Seguridad Social</i>   | 966.256                                      | (288.733)                               | 677.523                                     |
| <b>GUZTIRA<br/>TOTAL</b>  | <b>1.302.360</b>                             | <b>(281.688)</b>                        | <b>1.020.673</b>                            |

**9. Administrazio-kontratuak. Esleipen-prozedurak**

Ekonomia eta Ogasun Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak emandako informazioaren arabera, EAEko Sektore Publikoko Kontratuen Euskal Erregistroan sartutako kontratuak eta 2023ko ekitaldian esleitu direnak ondorengo hauek izan dira:

**9. Contratación administrativa. Procedimientos de adjudicación**

De acuerdo con la información facilitada por la Dirección de Patrimonio y Contratación del Departamento de Economía y Hacienda, los contratos incluidos en el Registro Vasco de Contratos del Sector Público de la CAE y adjudicados durante el ejercicio 2023 han sido los siguientes:

Eurotan  
En euros

| Kontratu mota<br>Tipo de contrato | Prozedura<br>Procedimiento                                     | Kontratuen kopurua<br>Nº de contratos | Esleipenaren zenbatekoa<br>Importe de adjudicación |
|-----------------------------------|--|---------------------------------------|--|
| Lanak<br><i>Obras</i>             | Irekia<br><i>Abierto</i>                                       | 1                                     | 620.000  |
| Lanak<br><i>Obras</i>             | Kontratu txikia<br><i>Contrato menor</i>                       | 7                                     | 156.931  |
| Hornidurak<br><i>Suministros</i>  | Irekia<br><i>Abierto</i>                                       | 11                                    | 879.664  |
| Hornidurak<br><i>Suministros</i>  | Esparru-akordioak<br><i>Acuerdo marco</i>                      | 11                                    | 295.908  |
| Hornidurak<br><i>Suministros</i>  | Kontratu txikia<br><i>Contrato menor</i>                       | 23                                    | 301.563  |
| Zerbitzuak<br><i>Servicios</i>    | Irekia<br><i>Abierto</i>                                       | 5                                     | 329.894  |
| Zerbitzuak<br><i>Servicios</i>    | Publizitate gabe negoziatua<br><i>Negociado sin publicidad</i> | 1                                     | 80.000   |
| Zerbitzuak<br><i>Servicios</i>    | Kontratu txikia<br><i>Contrato menor</i>                       | 30                                    | 382.108  |
| <b>GUZTIRA<br/>TOTAL</b>          |  | <b>89</b>                             | <b>3.046.069</b>                                   |



### 10. Aurrekontuari buruzko informazioa

Aurrekontuari buruzko informazioa Aurrekontuen Likidazioan dago zehaztuta.

Jarraian zehaztu da gestio-eragiketengatiko zordunen saldoa:

### 10. Información presupuestaria

La información presupuestaria se encuentra detallada en la Liquidación de los Presupuestos.

La composición del saldo de deudores por operaciones de gestión se detalla a continuación:

#### AITORTUTAKO ESKUBIDEENGATIKO ZORDUNAK DEUDORES POR DERECHOS RECONOCIDOS

Eurotan  
En euros

| KONTZEPTUA<br>CONCEPTO                 | 2023 ekitaldia<br>Ejercicio 2023 | 2022 ekitaldia<br>Ejercicio 2022 |
|--|----------------------------------|----------------------------------|
| Uneko ekitaldia<br>Ejercicio corriente | 3.406                            | --                               |
| <b>GUZTIRA<br/>TOTAL</b>               | <b>3.406</b>                     | <b>--</b>                        |

Jarraian zehaztu da gestio-eragiketengatiko hartzekodunen saldoa:

La composición del saldo de acreedores por operaciones de gestión se detalla a continuación:

#### AITORTUTAKO OBLIGAZIOENGATIKO HARTZEKODUNAK ACREDORES POR OBLIGACIONES RECONOCIDAS

Eurotan  
En euros

| KONTZEPTUA<br>CONCEPTO                 | 2023 ekitaldia<br>Ejercicio 2023 | 2022 ekitaldia<br>Ejercicio 2022 |
|--|----------------------------------|----------------------------------|
| Uneko ekitaldia<br>Ejercicio corriente | 2.244.336                        | 1.730.420                        |
| <b>GUZTIRA<br/>TOTAL</b>               | <b>2.244.336</b>                 | <b>1.730.420</b>                 |

Honako hau da aurreko ekitaldietako aitortutako obligazioengatiko hartzekodunen eboluzioa ekitaldian zehar, eta abenduaren 31ko egoera, sorrera-urtea kontuan izanik:

La evolución durante el ejercicio de los acreedores por obligaciones reconocidas de ejercicios anteriores y su situación a 31 de diciembre, en función de su año de origen, es la siguiente:

Eurotan  
En euros

| Aurrekontua<br>Presupuesto | Ordaintzeko dauden obligazioak<br>2023-01-01ean<br>Obligaciones pendientes de pago<br>al 01-01-2023 | Ekitaldian izandako ordainketak<br>Pagos durante el ejercicio | Ordaintzeko dauden obligazioak<br>2023-12-31n<br>Obligaciones pendientes de pago<br>al 31-12-2023 |
|----------------------------|---|---|---|
| 2022                       | 1.730.420   | 1.730.420   | --  |
| <b>GUZTIRA<br/>TOTAL</b>   | <b>1.730.420</b>  | <b>1.730.420</b>  | <b>--</b>   |





**11. Finantza-, ondare- eta aurrekontu-adierazleak**

**11. Indicadores financieros, patrimoniales y presupuestarios**

a) Likidezia orokorra: Bertan islatzen da aktibo korrientea osatzen duten ondare-elementu guztiek zein neurritan estaltzen duten pasibo korrientea.

a) Liquidez general: Refleja en qué medida todos los elementos patrimoniales que componen el activo corriente cubren el pasivo corriente.

$$\text{Likidezia orokorra} = \frac{\text{Aktibo korrientea}}{\text{Pasibo korrientea}} = \frac{10.519.244}{3.265.009} = \mathbf{322,2\%}$$

*Liquidez general*      *Activo corriente*      *Pasivo corriente*

b) Zorpetzea: Adierazten du pasibo galdagarri osoaren proportzioa (korrientea eta ez-korrientea), ondare garbia gehi pasibo osoarekiko.

b) Endeudamiento: Representa la relación entre la totalidad del pasivo exigible (corriente y no corriente) respecto al patrimonio neto más el pasivo total.

$$\text{Zorpetzea} = \frac{\text{Pasibo korrientea + Pasibo ez-korrientea}}{\text{Ondare garbia eta pasiboa guztira}} = \frac{3.265.009}{19.270.049} = \mathbf{16,9\%}$$

*Endeudamiento*      *Pasivo corriente + Pasivo no corriente*      *Total patrimonio neto y pasivo*

c) Gastuen aurrekontuaren gauzatzea: Aurrekontu-obligazioak aintzatestea eragin duen ekitaldian onetsitako kredituen proportzioa islatzen du.

c) Ejecución del presupuesto de gastos: Refleja la proporción de los créditos aprobados en el ejercicio que ha dado lugar al reconocimiento de obligaciones presupuestarias.

$$\text{Gastuen aurrekontuaren gauzatzea} = \frac{\text{Aitortutako obligazioak}}{\text{Kredituak guztira}} = \frac{21.027.724}{22.152.000} = \mathbf{94,9\%}$$

*Ejecución del presupuesto de gastos*      *Obligaciones reconocidas*      *Créditos totales*

d) Ordaintzeko batez besteko aldia: Faktura bat jaso eta ordaintzen den daten arteko batez besteko denbora islatzen du. Funtzionamendu-gastuen eta inbertsioen faktura-ordainketekin kalkulatzen da.

d) Periodo medio de pago: Refleja el tiempo medio entre la fecha de recepción de una factura y la fecha de su pago. Se obtiene con los pagos de facturas de gastos de funcionamiento e inversiones.

Ordaintzeko batez besteko aldia 31 egunekoa izan da 2023an.

El periodo medio de pago de 2023 asciende a 31 días.

e) Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatzea: Aintzatetsitako eskubideek behin betiko diru-sarreraren aurrekontuarekiko proportzioa islatzen du.

e) Ejecución del presupuesto de ingresos: Refleja la proporción de los derechos reconocidos sobre el presupuesto de ingresos definitivo.

$$\text{Sarreraren aurrekontuaren gauzatzea} = \frac{\text{Aitortutako eskubideak}}{\text{Behin betiko sarreraren aurrekontua}} = \frac{19.747.538}{22.152.000} = \mathbf{89,1\%}$$

*Ejecución del presupuesto de ingresos*      *Derechos reconocidos*      *Presupuesto de ingresos definitivo*



**12. Ondarearen emaitza ekonomikoaren eta aurrekontu emaitzaren arteko berdinkatzea**

**12. Conciliación entre el resultado económico-patrimonial y el resultado presupuestario**

Eurotan  
 En euros

|   |                    |
|---|--------------------|
| <b>2023 ekitaldiko emaitza garbia - Aurrezkia / (Desaurrezkia)</b><br><b>Resultado neto del ejercicio 2023 - Ahorro / (Desahorro)</b>   | <b>(865.406)</b>   |
| <b>KEN: Ondarearen emaitza ekonomikoan jasotzen ez diren aurrekontuko gastuak</b><br><b>MENOS: Gastos presupuestarios que no forman parte del resultado económico-patrimonial</b> | <b>954.689</b>     |
| Ibilgetu materialak eskuratzea<br><i>Adquisiciones de inmovilizado material</i>   | 954.689            |
| <b>GEHI: Aurrekontu emaitzean jasotzen ez diren gastuak</b><br><b>MAS: Gastos no incluidos en el resultado presupuestario</b>   | <b>539.909</b>     |
| Ibilgetuaren amortizazioetarako zuzkidurak<br><i>Dotaciones para amortizaciones de inmovilizado</i>   | 539.909            |
| <b>2023 ekitaldiko aurrekontu emaitza</b><br><b>Resultado presupuestario del ejercicio 2023</b>   | <b>(1.280.186)</b> |